



GOBERNU BILERA

Prentsa-Txostena
Erabaki nagusiak

CONSEJO DE GOBIERNO

Dossier de Prensa
Acuerdos destacados

Vitoria-Gasteiz, 2018ko martxoak 20

Vitoria-Gasteiz, 20 de marzo de 2018

Lehendakaritza

EUSKO JAURLARITZAK 15.000 ENPLEGUTIK GORA SUSTATU DITU 2017AN, ETA HORIETATIK ERDIA EDO GAZTEENTZAT IZAN DIRA

- **Gobernu Kontseiluak Ekonomiaren Susperraldiaren eta Enpleguaren aldeko 2017-2020 Esparru Programaren jarraipen- eta ebaluazio-dokumentua aztertu du**
- **2017an 2.000 milioi eurotik gora bideratu dira enplegua sustatzera eta ekonomia suspertzera, eta ezarritako helburu orokorren heren bat bete da**
- **40 proiektu estrategikoetatik 33 abian daude, eta 490 milioi eurotik gorako inbertsioa jaso dute**
- **Eusko Jaurlaritzak legealdiko helburu estrategiko gisa ezarri zuen 20.000 gazteri lehen lan-esperientzia eskaintzea eta langabezia tasa % 10etik behera uztea**

Eusko Jaurlaritzak iaz 15.567 enplegu sustatu zituen, eta horietatik 6.820 (% 44) euskal gazteei lehen lan-esperientzia eskaintzeko izan dira. Horiexek **dira Ekonomiaren Susperraldiaren eta Enpleguaren aldeko 2017-2020 Esparru Programaren jarraipen- eta ebaluazio-dokumentutik** ondorioztatzen diren datuetako batzuk. Dokumentua gaur goizean aurkeztu du lehendakariak Gobernu Kontseiluan. 2017an Legealdirako ezarritako **helburu orokorren heren bat eta urteko aurrekontuaren % 96** (2.000 milioitik gora) **bete da**. Programa honetan **40 herrialde-proiektu estrategikotako inbertsioak** ere aurreikusten dira, eta horietatik 33 daude abian eta 2017an 496 milioi euro jaso dituzte.

Programa 2017ko martxoan aurkeztu zen, eta helburua du **Euskadiko enpresen lehiakortasuna indartzea** eta susperraldiaren bidez enplegu gehiago eta hobe sortzea. Azpimarratu zen **langabezia % 10etik behera** utzi behar zela eta **20.000 gazteri lehen lan-esperientzia** eskaini behar zitzaiela helburu orokor gisa. Ekonomiaren Susperraldiaren eta Enpleguaren aldeko 2017-2020 Esparru Programa bi ardatz nagusitan dago oinarrituta: bat enpleguarena da, eta bigarrena inbertsioaren, berrikuntzaren, nazioartekotzearen eta industrializazioaren aldeko estrategia. **Programa honetarako 2020ra arte kalkulaturako baliabideak 8.800 milioi eurokoak dira:**

2017ko INPAKTUAREN EMAITZA

Eusko Jaurlaritzak iaz 2.000 milioitik gora bideratu zituen enplegua sustatzera eta ekonomia suspertzera: 227 milioi Enplegu Planera eta 1.817 milioi euro ekonomia suspertzera, eta horietatik 600 milioi abailan joan ziren.

Inpaktua honako adierazle hauetan laburbilduko litzateke:

- aurreikusitako inbertsioaren % 96 bete da (2.094 milioi euro)

- 15.567 enplegu sustatu dira
- 6.820 gaztek izan dute lan-aukera bat
- 1.719 enpresa berri sortu dira
- 35 ikerketa-proiektu estrategiko finantzatu dira
- 245 enpresa txiki eta ertain sartu dira kanpoko merkatuetan
- 1.725 ETEk garatu dituzte lehiakortasuna eta berrikuntza hobetzeko proiektuak
- 33 azpiegitura-proiektu estrategiko jarri dira abian

Gazteen enplegua

Politika horiek gazteen enpleguan duten eraginari buruzko datuetatik honakoak nabarmentzen dira, besteak beste: hezkuntzatik lan-mundura igartzeko programaren esparruan sortutako lanpostuak (2.166); toki eta eskualde planen bidez sortutakoak (834) edo Lehen Aukera Programaren ondorio direnak (498). Gainera, aurreikusten da 1.800 gazte baino gehiago iritsi ahal izango direla Eusko Jaurlaritzaren 2017ko LEPen bidez Administrazio Publikoko lanpostuetara.

Enpresen lehiakortasuna

Sustatutako enpleguen artean daude enpresa berriak sortzearen ondorio direnak (3.514); kontratazio-pizgarrien bidez sortutakoak (4.614); eta Lan Eskaintza Publikoetako plazak (4.225). Nabarmendu behar dira ekoizpen-prozesuetan berrikuntza-proiektu teknologikoak dituzten ETEak (371) eta produktu berriak garatzen dituztenak (884).

INBERTSIOA 40 PROIEKTU ESTRATEGIKOTAN

Ekonomiaren Susperraldiaren eta Enpleguaren aldeko Esparru Programak 40 proiektu estrategikotarako inbertsioak aurreikusten ditu 1.100 milioi euro baino gehiagorengatik. 40 proiektu horietatik 33 abian daude jada eta guztira 499 milioi euro erabili dira bere egikaritzean. Proiektu horiek honako esparru hauetakoak dira:

- Azpiegiturak eta mugikortasun jasangarria: AHTren azpiegiturak; Arasur plataforma; Bilboko Metroaren 3. linea; Gipuzkoa-Lezo plataforma logistikoa; Zibersegurtasun Zentroa...
- Hiriaren eta ingurumenaren berroneratzea: Koroatze auzoa berroneratzeko proiektua amaitzea; Zallan Kadagua eta Martutenen Urumea bideratzeko lanak; Oiongo araztegi lanak amaitzea...
- Lehen eta Bigarren Hezkuntzako azpiegiturak hedatzea: ikastetxe berriak Bizkaian (Bilbon eta Basaurin); Gipuzkoan (Bergaran, Zestoan eta Zumaian) eta Araban (Salburuan eta Zabalganen).
- Osasun-azpiegiturak hedatzea: Eibarko ospitalea irekitzea eta ospitale-azpiegitura eta osasun-zentro berriak hiru lurraldeetan.

2017ko jarraipen-dokumentu osoa: <http://bit.ly/2FMmLVO>

Gobernantza eta Autogobernua

EGUNERATU DA EUSKAL SEKTORE PUBLIKOKO KARGU PUBLIKOEN KATALOGOA

- Katalogoa, dagoeneko, herritarren esku dago www.euskadi.eus web-orrialdean, baina, gainera, eguneratzea EHAAn argitaratuko da
- Dokumentu hau Gobernuak ahalik eta gardentasun handienerako, publizitate aktiborako eta informazio publikoaren eskubiderako duen konpromisoaren ondorioz eguneratuko du

Gobernu Kontseiluak, gaur, “*Euskal Autonomia Erkidegoko Kargu Publikoen Katalogoa*” eguneratzea onetsi du; horrela, azaroaren 15eko 156/2016 Dekretua betetzen da; dekretu horren bidez ebazten da Gobernuak onetsi egingo duela urtero katalogoa eguneratzea, urteko lehen hiruhilekoan zehar, eta *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, EHAA*n, argitaratuko dela.

Katalogoa bera sortzeko dekretuan -azaroaren 18ko 216/2014 Dekretuan- ezartzen den bezala, Eusko Jaurlaritzak herritar guztientzat eskuragarri jartzen du web-orrialde ofizialean (www.euskadi.eus), konpromiso gisa, erantzukizun publikoko karguak betetzen dituzten pertsonen buruzko informazio guztia izateko eskubidearekin, gardentasun osoarekin eta publizitate aktiboarekin.

Katalogo honetan, “*Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publiko*”ko kargu publikoen eta behin-behineko karguen postu guztiak jaso ditu, bai eta Eusko Legebiltzarrak onetsitako “*ekainaren 26ko 1/2014 Legearen (Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta Haien Interes Gatazkak arautzen dituena) 2.1.e) artikuluan jaso diren organo eta erakunde*”etako kargu publikoen eta behin-behineko langileen postu guztiak ere.

Gobernantza eta Autogobernua

IVAP ETA BJKN LANKIDETZAN EUSKADIKO OPERADORE JURIDIKOEI PRESTAKUNTZA EMATEKO

- **Luzatu egin da hitzarmena, aurtengo abenduaren 31ra arte, Euskadin karrera judiziala eratzen dutenentzako eta euskal administrazio publikoetako langileentzako ikastaro, mintegi, hizketaldi eta mahai-inguruak antolatzen jarraitzeko**

Gobernu Kontseiluak, gaur, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak, BJKN-k, eta Herri Administrazioaren Euskal Erakundeak, IVAPek, prestakuntza-arloan 2017ko maiatzaren 25ean sinatu zuten hitzarmena luzatzea onetsi du. Bi erakundeek uste dute hertsiki lankidetzan jarduteak onurak ematen dizkiela, prestakuntza-arloan esleituta dituzten funtzioak betetzeko.

Horrela, 2018ko abenduaren 31ra arte, BJKN-k eta IVAPek konpromisoa hartzen dute Euskadiko karrera judizialeko kideei eta euskal administrazio publikoetako langileei zuzendutako zikloak, ikastaroak, mintegiak, hizketaldiak eta mahai-inguruak garatzen eta antolatzen jarraitzeko. Adostutakoaren arabera, aldeetako bakoitzak jarraitu beharko du programatzeko aurreikusita izan dituen prestakuntza-jardueren berri ematen, sasoz, beste aldeari parte hartzen duen ala ez erabakitzeko aukera emateko.

Era berean, segimendu-batzordeak jarraituko du bi erakundeak koordinatzen. Alde sinatzaile bakoitzeko bi ordezkariak eratzen duten batzordeak - BJKN eta IVAP- kontrolatu eta ebaluatu egiten ditu egin beharreko jarduerak.

Gobernantza eta Autogobernua

EUSKO JAURLARITZAK 15.000 EUROKO DIRU LAGUNTZA DU EUSKAL FUNDAZIO SEKTOREAREN PRESTAKUNTZA ETA ZABALKUNDE JARDUERETARAKO

- **Helburua da legeak euskal fundazioei exijitzen dizkien betebeharren berri izatea, horien elkartegintza sendotzea eta fundazio-sektorearen profesionaltasunari bide ematea**

Gobernu Kontseiluak, gaur, FUNKO Fundazioen Euskal Konfederazioari zuzeneko diru-laguntza ematea onetsi du, legeak euskal fundazioei exijitzen dizkien betebeharrerai buruzko prestakuntza- eta zabalkunde-jarduerak finantzatzeko, alegia, beren betebeharren ezagutza hobetzeko prestakuntza eta zabalkunde-jardunaldiak, besteak beste, betebeharrak juridikoak eta kontabilitatekoak, lege- edo zerga-arloetakoak. Laguntza horren helburua, halaber, fundazioen elkartegintza sendotzea eta fundazio-sektorearen profesionalizazioari bide ematea ere bada.

Gobernuak, horrela, 15.000 euroko diru-laguntza zuzena du; izan ere, bere ustez garrantzitsua da bere betebeharrak egokiro eta ziurtasunez ezagutzea eta beharrezkotzat jotzen da, bai administrazioarentzat, bai fundazio-sektorearentzat berarentzat, administrazio elektronikoaren eskakizun berrietara egokitzea.

FUNKO, une hauetan, Euskadin fundazio-sektoreko erakunde guztiak batzen dituen entitate bakarra da; hori dela eta, diru-laguntza hau zuzenean ematen zaio, eta ez deialdi arrunt eta orokorraren bidez.

Adostu denaren arabera, aurrerantzean, aplikaziorako eta segimendurako batzorde misto paritarioak, alde sinatzaile bakoitzetik –Eusko Jaurlaritza eta FUNKO– bi ordezkari eratu duenak, diru-laguntza honen helburu diren jarduerak egiten direla kontrolatu eta zainduko du.

FUNKO

FUNKO Fundazioen Euskal Konfederazioa irabazi-asmorik gabeko erakundea da. 2003an sortu zen, eta honako hauek ditu helburu, besteak beste: euskal fundazioen bide eta topaleku eta lankidetzaren gune izatea. Gainera, sektorearen interesen eta botere publikoekiko harremanaren aldeko ahotsa da. Horrela, FUNKOk euskal erakundeekin dihardu lankidetzan politika sektorialen eta jarduketa-programen diseinuan, betearazpenean eta ebaluazioan, bai eta euskal administrazioekiko lankidetzaren hitzarmenen bidez ere .

Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak

EUSKADIN IKERTZAILEAK ERAKARTZEA BABESTEKO ETA INDUSTRIA DOKTORETZAK SUSTATZEKO BIKAINTEK LAGUNTZEN PROGRAMARAKO 6.550.000 EURO

Gobernu Kontseiluak BIKAINTEK programaren laguntzen deialdia onartu du, industria-doktoretzak egiteko eta Euskal Autonomia Erkidegoan ikertzaileak erakartzeko.

Era horretan, 2018ko ekitaldi honetarako, Euskal Autonomia Erkidegoan kokatuta dauden edo produkzio-instalazio bat duten enpresetan eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sareko eragileetan industria-doktoretzak egiteko laguntzak arautzen dira eta laguntza horiek jasotzeko deialdia egiten da.

BIKAINTEKek ere aurreikusten du enpresek doktore tituludun ikertzaileak erakartzeko laguntza ematea; era horretan, pertsona horien ibilbide profesionalaren hasieratik euren laneratzea sustatuko da eta euskal produkzio-ehunaren lehiakortasuna handituko da bertara talentua erakarriz.

Jaurlaritzak 6.550.000 euro bideratuko ditu helburu horiek lortzeko. Eskaerak, erantzukizunpeko adierazpenak eta gainerako ereduak, kanal elektronikoaren bitartez, tramitatzeko zehaztapenak ondorengo egoitza elektronikoan daude eskuragarri xxxxxaren xxxxera arte:

<http://www.industria.ejgv.euskadi.eus/r44-teletram/es/> (gaztelaniaz)

<http://www.industria.ejgv.euskadi.eus/r44-teletram/eu/> (euskaraz)

Eskaera egin ondoren espedienterako sarrera eta gainerako tramiteak bide elektronikotik egingo dira, honako helbide hauen bitartez:

<http://www.euskadi.eus/misgestiones>

<http://www.euskadi.eus/nirekudeaketak>

Espezializazio adimendunean oinarrituta dagoen Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Plana —Euskadi 2020 ZTBP— da datozen urteetan I+G+B-ko politikak garatzeko Eusko Jaurlaritzak duen programazio-tresna.

Talentu ikertzailearekin loturik, Plan honek, besteak beste, ondorengo lan-ildo hauek ditu:

- Ikertzaileak enpresa-ehunean sartzea.
- Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko (ZTBES) eragileen eta enpresen arteko ezagutzaren transferentzia sustatzea.

- Esparru zientifiko-teknologikoan genero-etena murriztea, aukeren, eskubideen eta erantzukizunen berdintasuna sustatuz.

ZTBESeko eragileetara eta enpresetara giza kapital ikertzailea erakartzen laguntzeko tresna gisa, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak, orain arte, Berrikertu programa erabili du. Programa horren bitartez, orain arte, doktore titulua zuten zein ez zuten ikertzaileak kontratatzeko diru-laguntzak eman ditu.

Ildo horretatik, orain proposatzen den arauak ondorengo jarduketa hauek aurreikusten ditu:

- Doktore titulua duten ikertzaileak kontratatzeko laguntzak.
- Doktoretza-ikasketak Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko —ZTBES— enpresatan edo eragile jakinetan egingo dituzten pertsonak kontratatzeko laguntzak.

Doktore-tituludun ikertzaileak kontratatzeko laguntzen ildoak orain arte indarrean egon den Berrikertu programaren filosofia bera jarraitzen du, jarduerak enpresa-sektorean burutuko dituzten doktore titulua duten pertsonen kontratazioa batera finantzatzeko baitu. Zentzu horretan, aipatutako ildoaren bitartez, doktore gisa euren prestakuntzan bereziki garatutako gaitasunak dituzten pertsonak enpresa-ehunean sartzen laguntzen da, eta enpresen talentu- eta lehiakortasun-maila igotzen da.

ZTBESeko eragile jakinetan edo enpresetan doktoretza-ikasketak egingo dituzten pertsonak kontratatzeko laguntzen bitartez, bestalde, talentua atxiki nahi da eta doktoretzako ikasleak EAEko enpresa-ingurunetan I+Gko proiektuak garatzeko baldintzetan kokatu nahi da. Aldi berean, euskal industria-ehunaren lehiakortasuna eta nazioartekotzeko gaitasuna handitzen laguntzen da.

Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak

EUSKO JAURLARITZAK ITSASERTZEKO EREMUETAN INBERTSIOAK EGITEKO MILIOI ERDI EUROKO LAGUNTZEN DEIALDIA EGIN DU

- **Oinarrizko zerbitzuen eta ondarea zaintzeko jarduerak finantzatuko dituzte**
- **Euskal itsasertzeko bizi kalitatea hobetzeko eta modernoago jartzeko bidean aurrera egitea da helburua**

Eusko Jaurlaritzak, martxoaren 20ko Kontseiluaren bileran, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura sailburuaren agindua onartu du. Horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko itsasertzeko eremuak sustatzeko eta garatzeko laguntzen Itsaspen programa deitu dute. 500.000 euroko zenbatekoarekin, laguntza horien helburua da legealdi honetan gobernu autonomoak duen lehenetsunetako bat lortzeko bidean aurrera egitea, hau da, itsasertzeko munduan bizi kalitatea hobetzea eta modernizatzea.

Programa honen azken deialdian, 2016koan, guztira 13 proiektu finantzatu zituzten, 993.611 euroko balioa zuten inbertsioak bilduta. Horien artean, itsasertzeko ondarea eta kaltetutako inguruneak berreskuratzera eta irisgarritasuna hobetzera bideratutakoak nabarmentzen dira. Aipagarriak dira honako hauek: Zierbenan La Arena hondartzan irisgarritasuna hobetzea, Lekeitioan itsasertza berreskuratzea, EAn araztegi ekologikoa instalatzea eta Santurtzin subasta ontzia berreskuratzea, besteak beste.

2018an finantza daitezkeen jarduerak oinarrizko zerbitzuak ezartzera eta ondarea zaintzera bideratutakoak dira eta laguntza nahiz hartzaile mota ugari biltzen ditu:

- **Itsasertzeko herritarrentzako eta ekonomiarako oinarrizko zerbitzuak ezartzeko;** udalerriei, edo sozietateei, Administrazio Batzordeei, Kuadrillei, Mankomunitateei eta Eskualdeei zuzenduta.
- **Itsasertzeko ondarea zaintzeko eta hobetzeko;** horietara erakunde autonomoek, fundazio publikoek, partzuergoek, irabazi-asmorik gabeko pertsona juridiko pribatuek, Aldi Baterako Enpresa Elkarteek eta irabazi-asmorik gabeko ondasun-erkidegoek izango dute sarbidea.

Laguntza hauen deialdira sartzeko eskaerak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian Agindua argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Eskaerak Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saileko Landaren eta Itsasertzaren Garapena eta Europar Politikako zuzendariari bideratuko zaizkio. Eskaeraren inprimakia webgunean eskuragarri egongo da: [-www.nasdap.ejgv.euskadi.eus](http://www.nasdap.ejgv.euskadi.eus).

Enplegua eta Gizarte Politikak

600 GAZTEK AUZOLANDEGIETAN PARTE HARTZEKO AUKERA IZANGO DUTE 'AUZOLANDEGIAK' PROGRAMAREN BIDEZ

Gobernu Kontseiluak gazteek euskal lurraldean, beste autonomia-erkidego batzuetan eta atzerrian kokatutako auzolandegietan parte hartzera zuzendutako 'Auzolandegiak' programaren deialdia onartu du gaur.

Enplegu eta Gizarte Politiketarako sailburu Beatriz Artolazabalen Aginduak, Eusko Jaurlaritzako Gazteria Zuzendaritzaren deialdi hori arautzen duenak, ezartzen du 2017an 18 eta 26 urte arteko 312 gazte euskaldun inguru Auzolandegiak Programaz balia daitezkeela. Horietatik, 600 inguruk Euskadin, edo beste autonomia-erkidego batzuetan eta atzerrian kokatutako auzolandegietan hartuko dute parte. Era berean, beste autonomia-erkidego batzuetatik datozen beste 100 gaztek eta atzerriko beste 100ek euskal lurraldean kokatutako auzolandegietan soilik hartuko dute parte.

Auzolandegietan parte hartu nahi duten pertsonak izena emateko eskaera bat egin beharko dute apirilaren 19aren eta 25aren artean, biak barne, auzolandegien www.gazteukera.euskadi.eus helbidean, eta hor eskaeraz-zenbakia esleituko zaie. Eskaera horrek eta haren zenbakiak gero notario aurrean egingo den zozketan parte hartzeko aukera emango die.

Dibertsitate funtzionala duten pertsonen kasuan, plaza-eskaera egiteko, apirilaren 19tik aurrera eta 15 egun naturaleko aldirian www.gazteukera.euskadi.eus atarian deskarga dezaketen eskaera-eredua bete beharko dute.

Izena emateko formularioa eta erantsitako dokumentazioa Vitoria-Gasteizen aurkez daiteke, Donostia, 1 kalean. Aurrez aurre ere egin dezakete Zuzenean-Lakuan eta Zuzenean-en Bilboko, Donostiako eta Vitoria-Gasteizeko bulegoetan, eta EAEko beste erregistro osagarrietan.

Hezkuntza

169.600 EURO LANBIDE HEZIKETAKO ITUNPEKO ZENTROETAKO IRAKASLEEN FORMAZIO IKASTAROETARAKO

Gobernu Kontseiluak Hezkuntza sailburuaren proposamenez, Lanbide Heziketako heziketa-zikloak eskaintzen dituzten itunpeko ikastetxe pribatuek euren irakasleentzat burutzen dituzten prestakuntza-jarduerak diruz laguntzen dituen Agindua onartu du. Prestakuntza-jarduera horiek 2018-2019 ikasturtean burutuak izan beharko dute.

Laguntza hauek eskatzeko interesa duten ikastetxeek, eskaintzen dituzten heziketa-zikloekin zerikusia duten prestakuntza-jarduerak aurkeztu beharko dituzte deialdira. Prestakuntza-jarduera bakoitzak gutxienik 10 orduko iraupena izan beharko du, eta 35 ordukoa gehienez. Deialdian parte hartu ahal izango dute, Euskadin Lanbide Heziketako heziketa-zikloak eskaintzeko baimenduta dauden itunpeko ikastetxe pribatuek.

Deialdi honek 169.600 euroko diru kopurua du. Ikastetxe bakoitzak jaso dezakeen diru-laguntzarik handiena 32.000 eurokoa da, hautatutako prestakuntza-jarduera guztiengatik. Honako gastu hauek ordaintzeko erabili beharko dira deialdi honen bidez jasotako laguntzak: ikastetxez kanpoko adituak kontratatzeak eragindako gastuak, edo prestakuntza-jardueretarako berariaz eskuratutako materialen gastuak ordaintzeko.

Jasotako diru-laguntzak bateraezinak izango dira helburu berbera duten beste deialdi batzuetatik jasotako laguntzekin. Eskaerak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, Agindua EHAA n argitaratu eta hurrengo egunean hasita.

Hezkuntza

200.000 EURO KONGRESUAK ETA ZIENTZIA BILERAK EGITEKO LAGUNTZATAN

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, gaurko bileran onartu du ikerketa zientifikoaren arloko kongresu eta bilera presentzialak antolatzeko diru-laguntzak ematen dituen agindua. Kongresu eta bilera horiek Euskal Autonomia Erkidegoan burutu beharko dira, 2018ko bigarren seihilekoan. Deialdi honek 200.000 euroko diru-kopurua du.

Laguntza hauen onuradun izan daitezke Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sareko agente kreditatuak, haien kategoria edozein dela ere.

Diru-laguntza hauek, honako gastu arrunt hauek ordaintzeko erabili beharko dituzte: kongresu edo bileraren antolamendua eta zabalkunde gastuak, hizlari gonbidatuen parte-hartze gastuak, edo kongresuen kasuan, ekarpen zientifikorik onenari eman ohi zaion saria.

Deialdi honetatik kanpo geratuko dira, bereziki prestakuntzakoak diren ikastaroak eta jarduerak, hala nola irakaskuntzako eta ikaskuntzako trebakuntzarako prestakuntza-jardunaldiak, tailerrak edo mintegiak, besteak beste.

31 kongresu edo bilera lehen seihilekoan

Deialdi hau sei hilean behin argitaratzen da, eta Euskadin burutzen diren 70 kongresu edo bilera inguru finantzatzen laguntzen du, urteko. Aurtengo lehen seihilekoari dagokion deialdiaren bidez, 31 kongresu edo bilera lagundu dira diruz 2018ko urtarriletik ekainera bitartean. Kongresu horien antolatzaile izan dira UPV/EHU, BCBL (Basque Center on Cognition, Brain and Language), Deustuko Unibertsitatea, DIPC (Donostia International Physics Center), Biodonostia, Tecnalia Fundazioa, edo Bcam (Basque Center for Applied Mathematics), Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sarea osatzen duten beste zenbait eragileren artean.

Ikerketa zientifikoaren arloko kongresu eta bilera hauek oso tresna egokiak dira ideiak eta ezagupen zientifiko eta teknologiko aurreratuak trukatu eta zabaltzeko, prestigio handiko ikertzaile eta irakasleen parte hartzea bultzatzen baitute.

Turismo, Merkataritza eta Kontsumo

GOBERNU KONTSEILUAK TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMOKO SAILAREN DIRU LAGUNTZEN 2018KO PLAN ESTRATEGIKOA ONETSI DU

Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko Sailaren Diru-laguntzen 2018ko Plan Estrategikoa 9.975.904 eurokoa da, eta Sailaren Merkataritza Zuzendaritzak eta Turismo eta Ostalaritza Zuzendaritzak kudeatutako deialdi guztiak jaso ditu. Plan honetan ez da sartu Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutua erakunde autonomoaren diru-laguntza jarduera; bere Diru-laguntzen Plan Estrategikoa du, 2016-2018 aldirako, eta, ekitaldi honetarako, 2 diru-laguntza lerro ditu, 1.451.000 eurokoak.

Plana programatikoa da; Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko Sailaren jarduketan arlo estrategikoetako politika planifikatzeko tresna gisa eratzen da. Batetik, merkataritzaren sektorean, lehiakortasuna eta modernitatea sustatzeko, ekintzailtzarako eta talentua garatzeko, lankidetzarako eta merkataritzako eta prestakuntzako integrazio estrategikorako eta ezagutzaren kudeaketarako programak garatzen ditu.

Horretarako, ikerketa- eta garapen-proiektu berriak diruz lagunduko dira, eta merkataritzaren digitalizazioa bizkortzen duten ekimenak sustatuko dira. Era berean, ekintzailtza bultzatuko da; horretarako, merkataritza-arloko sustapenerako, garapenerako eta dinamizaziorako laguntza-ildo berria sortuko da, ahulagoak izan daitezkeen guneetan, bai ikuspuntu sozialetik, bai ekonomikotik. Elkarte-egiturak sendotzeko ekintzak sustatuko dira, teknologia berrien ezagutza, berrikuntza eta txertatzea bultzatuko da; horretarako, gaitasun lehiakorren sakonduko da, gero eta dimentsionatuagoa eta exijenteagoa den merkatuan. Eta euskarria emango zaio sektorean prestakuntzaren eta gaikuntzaren hobekuntzari.

Bestalde, turismoaren arloan, hazkunde turistiko dibertsifikatuaren eredua, kalitatean zentratzen dena eta lurralde aldetik orekatua dena, bikaintasunean, jasangarritasunean, turismo esperientzialean eta Euskadi-Basque Country marka turistikoan oinarritzen dena sustatzeko ekintzak bultzatzen dira. Plan estrategikoan Euskadiko baliabide turistikoen sustapena bultzatzeko, produktu turistikoak diseinatzea, abiaraztea eta merkaturatzea bultzatzeko, bikaintasuneko turistaren targetaren arabera eskari espezializatuari erantzuteko eskaintzaren dibertsifikazioa eta produktuak edonolako formatu berrizailtan merkaturatzea sustatzeko diru-laguntza ildoak sartzen dira.

Guztira, turismoaren eta merkataritzaren arloek 31 diru-laguntza ildo garatuko dituzte, eta horien zenbateko osoa, 2018. urterako, 9.975.904 euro izango da. 31 deialdi horien artean, saltokiak modernizatzeko ildoak nabarmendu behar dira -2.100.000 euroko zuzkidura dute-, merkataritzan ekintzailtzarako

laguntza-ildo berria –milioi bat euroko zuzkidura–, HIRIGUNE zonako estrategiak garatzen laguntzeko programa –2.488.063 euroko zuzkidura–, hiriguneetako merkataritza-dinamizazioko programak –1.829.573 euroko zuzkidura–, lurralde-proiektu turistikoak –1.284.000 euro– edo enpresa turistikoen ekintzailetzarako eta horietako lehiakortasuna hobetzeko laguntzak –900.000 euro–.

Presidencia

EL GOBIERNO VASCO HA INCENTIVADO MÁS DE 15.000 EMPLEOS EN 2017 DE LOS CUALES CERCA DE LA MITAD HAN SIDO PARA JÓVENES

- El Consejo de Gobierno ha analizado el documento de seguimiento y evaluación del Programa Marco por el Empleo y la Reactivación Económica 2017-2020
- Al cierre de 2017 se han destinado más de 2.000 millones de euros al fomento del empleo y a la reactivación económica y se han alcanzado un tercio de los objetivos globales establecidos
- 33 de los 40 proyectos estratégicos señalados están en marcha y han recibido una inversión superior a los 490 millones de euros
- El Gobierno Vasco marcó como objetivos estratégicos de legislatura ofrecer una primera experiencia laboral a 20.000 jóvenes y establecer la tasa de desempleo por debajo del 10%

El Gobierno Vasco incentivó el pasado año 15.567 empleos de los cuales 6.820 (44%) han servido para ofrecer una primera experiencia laboral a jóvenes vascos. Son datos que se desprenden del **documento de seguimiento y evaluación del Programa Marco por el Empleo y la Reactivación Económica 2017-2020** presentado esta mañana por el Lehendakari en el Consejo de Gobierno. Al cierre del 2017, se han **ejecutado un tercio de los objetivos globales** establecidos para la Legislatura y **el 96% del presupuesto anual** (más de 2.000 millones). Este programa prevé también **inversiones en 40 proyectos estratégicos** de País de los cuales 33 ya están en marcha y han recibido 496 millones de euros en 2017.

El programa se presentó en marzo de 2017 y busca **reforzar la competitividad de las empresas vascas** así como lograr que la recuperación se materialice en términos de más empleo y de mejor calidad. Se destacó reducir el **paro por debajo del 10%** y ofrecer una **primera experiencia laboral a 20.000 jóvenes** como objetivos de País. El programa Marco por el Empleo y la Reactivación Económica 2017-2020 está estructurado en 2 grandes ejes: Empleo y Estrategia “4I” (Inversión, Innovación, Internacionalización e Industrialización). **Los recursos estimados para este programa hasta 2020 ascienden a un total de 8.800 millones de euros:**

RESULTADO DE IMPACTO 2017

A lo largo del año pasado el Gobierno Vasco destinó más de 2.000 millones al fomento del empleo y la reactivación económica: 277 millones al Plan de Empleo y 1.817 millones de euros a la Estrategia 4I, de los cuales 600 millones fueron en avales.

El impacto se resumiría en los siguientes indicadores:

- 96 % de la inversión prevista ejecutada (2.094 millones de euros)

- 15.567 empleos incentivados
- 6.820 jóvenes han tenido una oportunidad laboral
- 1.719 nuevas empresas creadas
- 35 proyectos estratégicos de investigación
- 245 pequeñas y medianas empresas han accedido a mercados exteriores
- 1.725 PYME han desarrollado proyectos de mejora competitiva e innovación
- 33 proyectos estratégicos de infraestructuras en ejecución

Empleo juvenil

